

Euzkirik euzkien yat
aur begi-oztin au;
ortzipean beiñik-bein
antzekorik eztau.

Zeru dakust beragan,
zorunez betia;
begiratzuz ase daust
edermin bizia.

Bizitz-bidean aurki
ba'dot kulumio,
lagun eske berari
laster noakio.

Oiñaze-geriza gain
dabilkidanean,
argi-ontzi oberik
eztazaut lurreean.

Zer dakardan aspaldi
barruan eztakit,
baiña biotz gose au
agana doakit. •

Zer dot...? Au aldakuntza!
Zerbait dakit peitu.
Oi Josu, begi-urdin,
zer daustazu ostu?

Eiztari trebe, azkona
daust artez egotzi,
ta biotz-mamiñean
zorrozkiro josi.

Neure biotzan jabe
bera dot geroztik:
Bizi nadin erroak
maitean egiñik.

ABEAN

Oldozti, gogo-batu, argitasun miñez,
bizitz-ibai ondolik nenbillan goiz batez
illunabar antzeko izpi me artean
Abea agiri yatan goiko kukutzean.

Ikus-leiz ara nintzan; eta an dakustana!
Lore leitua irudi, zail, tximur soin dana,
Josu, ludi eguzki. Abean zintzilik;
miñen gozagarri dan Eguzkia itzalik.

—Nok zaitu, Argi zorakor, apain odol-izpiz?
Nok zugaitzean josi? —dirautsot errukiz.
—Maitasunak, enetxo, jarri nau onelan:
bere suzko geziak naukee Abe ontan.

Betoz maiteminduak (gero oiue egian)
uda-itzala baita bere adarpian;
artu zugaitz ontatik igali marduak,
neure biotz barneko su goriz elduak.

Zitu maitez umook sarri miztu dodaz,
ta azalez gorri, gozo mamiñez daurkidaz.
Abeak, arantzak dauz; baiña emariak
giz-ao-sabaiar; yakozan guriak!

EZTI U TSA

Miren! Izen ezti uts, olerki iturri;
jainkozko mosu baten gizaz jantzi antza.
Nok, bear aiña, zure izena goretzi?
Zure Ama-biotzan samurtasuna aintza?